
Herri Aldizkaria
otamotz
2004ko abendua 102. alea



La Salle-Legazpik egoitzaren 75. urteurrena ospatuko du

IRITZIZ IRITZI: PEIO GALVEZ - JOSU AZTIRIA
ELKARRIZKETAK: JUANITO ARBIZU - GORKA QUEVEDO
IZERDI PATSETAN: UROLAKO BETERANOAK

ESKOLA PUBLIKOA



KAXKA ZURI SUDUR GORRI
MENDI GAINA ZURI ZURI
ZORIONAK ZORIONAK
BERTAN DITUGU GABONAK

GAINZURI
Okastetxea
URRETXU - ZUMARRAGA

J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu

ARGAZKI ZAHARRA



1971. urtean jaiotako gazteei 1977. urtean Ikastolan ateratako argazkia.
Goiko ilaran: Itziar Zaldua (andereñoa), Gorka Oruesagasti, Jon Gurutz Goia, Åitor Korta, Ignazio Aranburu, Xabier Desosa, Amagoia Lopez, Mikel Okariz, Luzia Bastida, Silvia Tauschke eta Karmele Elgea.
2. ilaran: Idoia Agirre, Karmele Salamero, Mirari Aranburu, Lierni Ruiz, Beatriz Arrizabalaga, Eli Ruiz, Marta Morillo, Ainhoa Izagirre, Jaione Elizburu, Idoia Etxeberria eta Elisa Kristina Martinez.
3. ilaran: Mikel Adrados, Joseba Pozueta, Gorka Egiguren, Ramon Rodriguez, Xabier Madina, Iñaki Oses, Iker Telleria, Ibon Tapia, Koldo Aranguren eta Antton Iturbe.
4. ilaran: Kontxi Prieto, Idoia Azurmendi, Nekane Ausin, Kizkitza Ugarteburu, Sonia Martinez, Gorka eta Joseba Apaolaza, Unai San Vicente, Aitor Urteaga, Gorka Garmendia eta Joseba Andoni Guridi.


Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du


Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KLIK ETA KLIK

Atal berri honetan Urretxu eta Zumarragako argazkilari batek hileko ekitaldi batean ateratako argazkiak erakutsiko ditugu. Ale honetan Karlos Mediavillak Santa Lutzitako ferian ateratako argazkiak dituzue ikusgai.













KLIK ETA KLIK














La Salle, hezkuntza eska

Antonio Pradak La Salleren historiari buruzko li

La Salle-Legazpi ikastetxeak bere egungo egoitzaren 75. urteurrena ospatu behar du datorren urtean zehar. Urtarriletik ekainera bitartean, hilero, ekitaldi bat izango da. Besteak beste, ikastetxearen historiari buruzko argazki erakusketa eta liburuaren aurkezpena izango dira. Liburu hau Antonio Prada Zumarragako agirizainak idatzi du eta berarekin hitz egiten izan gara ikastetxearen historiari buruz.



La Salle-Legazpiren historiari buruzkoa Antonio Pradaren hirugarren liburua izango da.

La Salle-Legazpiren egungo egoitzak datorren urteko martxoaren 19an beteko ditu 75 urte. Hori dela eta, La Salleko arduradunek Antonio Pradari ikastetxearen historia liburu batean biltzeko eskatu zioten. Pradaren informazio iturria Udaleko akta liburuak eta Hezkuntza saileko dokumentuak eta La Salleko jendea izan dira. "Ikastetxe bertako eta ikasle ohien elkarteko dokumentuak ekarri dizkidate. Donostiatik, berriz, estatutuak ekarri dizkidate. Hauekin guztiekin historia zientifikoa egiten saiatu naiz".

Liburua La Salle-Legazpiren sorrera garaian herriko egoera zein zen aurkeztuz hasiko da. "Garai hartan, herriko hezkuntza eskaintza borobiltzeko zer edo zer falta zen. Ikastetxe publikoak, mojen eskolak eta baserri auzoetako eskolak zeuden, baina ikasketak osatu nahi zituzten ikasleek herritik atera behar zuten eta kanpoan jasotzen zuten hezkuntzak ez zuen herriko enpresetan lan egiteko balio. Hori dela eta, kanpoan gelditzen ziren lanean edo, herrira itzuliz gero, ez zuten ikasitako horretan lan egiterik".

> "Fraileen eskolara eskola publikora baino ikasle gehiago joaten zen"

Hau ikusirik, herriko enpresen beharrei egokitutako ikastetxea sortzea erabaki zen. Horretarako, Udalak eta enpresariek Salestarrei deitu zieten. Izan ere, hauen hezkuntza eredua herrirako oso aproposa zela ikusi zen. "San Juan Bautista de La Salle frantziarra zen. Hezkuntzak asko kezkatzen zuenez, behartsuei heziketa integrala eta kristaua emateko oso eredu berezia sortu zuen duela hiru mende pasatxo. Bere ereduak Frantzian arrakasta handia izan zuen eta XX. mende hasieran Euskal Herrian ere Salestar ikastetxeak sortzen hasi ziren. Zumarragakoa ireki aurretik, Beasaingoa, Bilbokoa... ireki zituzten. Hemen zegoen ereduaren aldean, Salestarrena oso aurreratua zen eta industria gizonek oso begi onez ikusten zuten. Izan ere, Salestarrek euren hezkuntza eskaintza tokian-tokiko enpresen beharretara oso ondo egokitzen zuten. Garai hartan hezkuntza publikoak ematen ez zuena ematen zuten".

Zumarragako Udalak eta industria gizonek gogor lan egin behar izan zuten Salestarrak herrira ekartzeko. "Migel Ugalde alkateak, bereziki, oso gogor lan egin zuen. Negoziazioak oso luzeak izan ziren eta herriak erraztasun guztiak eman zizkien. Lehen urteetan, 1914ko azarotik aurrera, alokatutako etxe batean bizi eta eman zituzten klaseak, egun Legazpi kooperatiba dagoen etxean; baina alokairua eta fraileen soldata Udalak ordaintzen zuen. Denborarekin, Udalak, ikasle ohiek eta enpresariek *Asociación de Escuelas Legazpi* sortu zuten ikastetxean herriaren partaidetza bermatzeko".

Elkarte honek fraileei herritar guztientzako zerbitzuak eskaintzeko eskatzen zien. "Kirol instalakuntzak egiteko

intza osatu zuen eskola

urua idatzi du eraikinaren 75 urteurrena dela eta



75 urte beteko dituen eraikina, handitze-lanak egin aurretik.



1977: Jabier Aia zuzendaria (bigarrena) eta Jose Ramon Hernandez presidentea (laugarrena) Lan ministeritzako jendearekin.

dirua ematen zenean, adibidez, hauek herritar guztiei irekita izatea eskatzen zieten. Baita euskara klaseak denei zuzenduta egotea ere. Dena den, eskaera nagusia lan mundura zuzendutako hezkuntza zen". Herriaren esfortzua ikusirik, fraileak eskolako ateak herritar guztiei irekitzen saiatzen omen ziren. "Kuota kobratzen zieten ikasleei, baina euren nahia doaneko ikastetxea lortzea zen. Hori dela eta, ahalik eta gutxien kobratzen zuten".

Hala, hasiera-hasieratik Salestarren ikastetxeak sekulako arrakasta izan omen zuen. "Herriko ikasleen portzentaia handi bat fraileen eskolara joaten zen, eskola publikora baino ikasle gehiago joaten zen. Izan ere, hezkuntza ia integrala eskaintzen zuten, Eskola Profesionala bukatu bitartekoa. Lehen urteetan administrazio postuetarako heziketa eskaini zuten batez ere. Beranduago, hemengo enpresak hazi zirenean eta etorkinak etorri zirenean, Lanbide Heziketaren aldeko apostua egin zuten. Artiz alkateak dirulaguntza eta *Centro de Interés Social* izendapena lortu zuen espainiar estatuarengandik. Gainera, Salestarrek enpresekin eta instituzioekin hitzarmenak sinatzen zituzten ikasleentzat praktikak lortzeko. La Salle-Legazpi Lanbide Heziketan oso aurreratua izan zen. Garai batean, Lanbide Heziketa eskaintzen zuten eskola gutxi zeuden eta ia 1.000 ikasle izan zituzten".

Lanbide Heziketa abian jarri baino lehenago jada, Legazpi kooperatiba dagoen etxea txikia gelditu zitzaien. 20. hamarkadako bigarren erdialdean, ikastetxe handiagoa lortzeko negoziazioak hasi ziren. "Hor ere, herritarrak, Udala eta Foru Aldundia asko inplikatu ziren. Udalak 40.000 pezeta jarri zituen. Lehendabizi egungo ikastetxearen jatorrizko eraikina egin zuten eta urteekin handitzeak egin ziren. Egungo egoitzaren jatorrizko eraikina 1930eko martxoaren 19an inauguratu zen. 60ko hamarkadan, berriz, eraikin hori



Handitze lanak 60ko hamarkadan egin ziren.



Urte hauetan guztietan milaka ikasle pasatu dira La Salletik.



Kirolak eta kulturak beti izan dute tokia La Sallen.




handitu egin zen. Hamarkada horren bukaerarako La Salle-Legazpiren eraikinak egun duen itxura zuen".

80ko hamarkada bukaeran beste bi aldaketa garrantzitsu eman ziren: alde batetik, La Salleko ateak neskei ireki zitzaizkien eta, bestetik, ordurarte euren ikurra izan zen Lanbide Heziketa UGLEren eskuetara pasatzeko prozesua hasi zen. "Hamarkadetan euren esku izandako Lanbide Heziketa Mankomunitatearen esku utzi behar izan zuten eta eskualdatze hori oso konplexua izan zen. Azkenean, Mankomunitateak mojei eskola erosi zien bertan Lanbide Heziketa emateko eta mojen ikasleak La Sallek hartu zituen. 1996-1997 ikasturtean utzi zioten Lanbide Heziketa eskaintzeari".

Gainera, garai hartan, Salestarren ikastetxeak daramatzan *Instituto de Escuelas Cristianas*-ek eta *Asociación de Escuelas Legazpi*-k, La Salle-Legazpiren bi zutabeek, sinatu zuten hitzarmenaren ondorioz, lehenengoek geroz eta pisu txikiagoa dute. "Gizartea aldatu egin da eta La Salle ikastetxe guztietan laikoak garrantzia handiagoa hartzen ari dira. Hala, hezkuntza bera publifikatu egin da".





Urteurren egitarau oparoa

La Salle-Legazpi ikastetxekoek urteurren egitarau oparoa antolatu dute. Urtarriletik ekainera bitartean, hilero, hainbat ekitaldi izango dira.

Urtarrila

-27: Urteurren egitarauari hasiera oficiala emango zaio hainbat agintariren partaidetzarekin.

Otsaila

-4: Antonio Pradak idatzi duen La Salle-Legazpi ikastetxearen historiari buruzko liburua aurkeztuko da.

-18: Juan Jose Brunet-ek "La Salle eskolak 21. mendean" hitzaldia eskainiko du.

Martxoa

-4: Musika Eskolako ikasleek jaialdia eskainiko dute.

Apirila

-8: Zumarragako eta Baigorriko abesbatzen kontzertua izango da.

-24: La Salle ikastetxeetako mendi taldeen topaketa izango da.

-25-29: Antzerki Astea izango da.

Maiatza

-9-13: La Salle Astea ospatuko da.

-7-15: Urte hauetan guztietan La Salle-Legazpin ateratako argazkien erakusketa izango da.

Ekaina

-3: Kirolari ezagunek mahaingurua eskainiko dute.

-18: La Salle ikastetxeetako kirol topaketa eta urteurren afaria izango dira.



Alfredo Bueno, bi garairen lekuko

La Salle ikastetxeetan, fraile salestarrek sortutako ikastetxeak badira ere, laikoek gero eta pisu handiagoa dute. Hala, oraintxe bertan La Salle-Legazpin hiru frailek besterik ez dute klase ematen eta beteranoetako bat Alfredo Bueno bilbotarra da. Alfredo salestar peto-petoa da, ikasketa ia guztiak salestar ikastetxeetan egin baitzituen. Zumarragara 1973an etorri zen lehenengoz klase ematera, bi urterako, eta 1995ean itzuli zen. Berarekin hitz egiten izan gara ikastetxeari eta hezkuntzari buruz.

HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61


PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



"Irakasle gehiegi genituen eta mila buelta eman genuen guztiak mantendu ahal izateko"



Noiz eta non jaio zinen?

Bilbo erdian jaio nintzen 1949an, Indautxu aldean, baina bi urterekin Deustura joan ginen bizitzera. Hango La Salle ikastetxean hasi nintzen ikasten. Jose Mari Amorrortu Realeko entrenatzaileak ere Deustuko La Sallen ikasi zuen, nire anaiarekin.

Salestar peto-petoa zara, beraz...

Txikitatik, bai... La Salletik kanpo kimika ikasketak eta EGA titulua ateratzeko ikasketak soilik egin ditut. Oinarrizko Hezkuntza, Batxilergo eta magisteritza ikasketak La Sallen egin nituen. Bestalde, 18 urte nituenetik La Salle ikastetxeetan klaseak ematen ari naiz.

Nolatan etorri zinen Urretxu-Zumarragara?

Bi garaitan izan naiz Urretxu-Zumarragan. Lehendabizikoan 1973tik 1975era izan nintzen eta bigarrengoz 1995ean etorri nintzen, zuzendaritza hartzera. 1995-1996 ikasturtean OHOko zuzendaritza hartu nuen eta 1996-1997 ikasturtean ikastetxe osoarena. Urte hartan izan zen La Salle, Labeaga eta Merzedarien ikastetxeen fusioa. Baita UGLEren sorrera ere.

Bilbotik, hiri handi batetik, Urretxu-Zumarragara, zer inpresio hartu zenuen?

Lehenago Laudio, Eibar eta Bilbon aritu nintzen klaseak ematen. Garai hartan herria oso kaxkarra zen, zikina, ibai ondoan lantegiak zeuden... 1995ean etorri nintzenean oso hobetua ikusi nuen. Normala da, Bilbo ere asko aldatu da 20 urtetan...

Zer nolakoa izan zen hemen igarotako lehen garaia?

Agindutako tokietara joaten gara. Hona etorri nintzenean magisteritza bakarrik nuen eta Lanbide Heziketan eman nituen klaseak. 1975ean, berriz, kimika ikasketak egitea erabaki nuen eta Leioara joan nintzen.

Nolatan egin zenituen kimika ikasketak?

Unibertsitate ikasketak egiteko aukera eman zidaten eta kimika ikastea erabaki nuen. Nahiago nuen biologia egin, baina La Sallen biologo asko omen zeuden... Gurea bigarren edo hirugarren promozioa izan zen. Garai hartan Leioari gauza asko falta zitzaion. Kanpusa egin berria zen eta Euskadin unibertsitate mailako irakasle gutxi zeuden. Hemengo irakasle bakarretakoa Jose Ramon Etxeberria zen. Berak fisika ematen zuen eta fisika egiten ari zen lagun bat eta biok askotan joaten ginen bere bulegora berarekin hitz egitera eta, bide batez, euskara pittin bat praktikatzera.

Unibertsitate ikasketak amaitu ondoren, nondik nora ibili zinen?

Bilbon klaseak eman nituen eta Irale euskaltegian EGA titulua atera nuen. Garai hartan urte bakarra ematen ziguten titulua ateratzeko, baina lehenago bi urtez San Inazio auzoko gau eskolara joan nintzen. Han Iñaki Antiguedad ezagutu nuen, besteak beste. Gau eskolara joanez eszedentzia urtea lortu nuen, interesa ikusi baitzuten.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Ez nuen neure burua karrera eta EGA titulua aldi berean ateratzeko gai ikusi, baina oso argi nuen karrera bukatu bezain pronto EGA titulua atera behar nuela.

Zer pentsatu zenuen berriro Urretxu-Zumarragara etorri behar zenuela esan zizutenean?

Berri txarra ez zen berriro Urretxu-Zumarragara etorri beharra, bai, ordea, zuzendari postua hartu beharra. Herria ezagutzen nuen eta gustura etorri nintzen. Zortzi urtez izan nintzen zuzendari: 2003an utzi nuen.

Eskola asko aldatuko zen lehenengoz etorri zinenetik bigarrengoz etorri zinen bitartera...

Fusioa egin zen garaian oso ikasle gutxi zeuden ikastetxean, nahiz eta hiru ikastetxe elkartu. Bi gela genituen kontzertaturik eta oso larri ibili ginen bi gela osatzeko. Lehen urteak gogorrak izan ziren. Zorionez kopurua handitzen joan zen eta egun Haur Hezkuntza beteta dago. Aldaketa hori lan egin genuelako eta jarraipena ziurtatu genuelako eman zen. Izan ere, fusioa gertatu aurreko urteetan gorabehera asko izan ziren: hemen eraikin berria egiteaz eta Lanbide Heziketa hemen mantentzeaz, txikiak gora bidaltzeaz eta handiak hemen gelditzeaz... hitz egin zen. Urte haietan gurasoek haurrak lasaiagoak ziru-

diten ikastetxeetara bidali zituzten.

Urte haiek izango ziren zuentzat gogorrenak...

Garai hartan maila batzuetan hiru gela genituen eta gure asmoa, baita Hezkuntza sailarena ere, maila bakoitzean bi gela izatea zen. Hori dela eta, irakasle gehiegi genituen eta pertsona bati bere kontratua etetea oso gogorra da. Mila buelta eman genuen irakasle guztiak mantendu ahal izateko: bati aldez aurreko jubilazioa eskaini, bestea ikastera bidali... Irakasle bakarrari eten behar izan genion kontratua eta oso gogorra izan zen.

Une gozoren bat ere bereziki gogoratuko duzu...

Haur Hezkuntzako gelak betetzen hasi zirenean poz handia hartu genuen. Urte batean jende gehiegik eman zuen izena eta ez genuen guztiak hartzeko tokirik. Delegaritzak, azkenean, denak hartzeko baimena eman zigun. Ordutik, jendea hartzeko irizpide publikoak erabiltzen ditugu.

Azken urteotan ikasle kopuruak gora egin duela esan duzu. Zein da zuen ikasleen profila? Familia askotan seme-alabak La Sallera bidaltzea tradizioa izango da...

Kalitatearen zilarrezko Q-a atera nahi dugu eta, horretarako, hori aztertu dugu, besteak beste. Egia da familia askok seme-alabak tradizioz bidaltzen dituztela La Sallera. Azken urteotan Urretxu eta Zumarragako ikasleen portzentaia mantendu egiten dela ere ikusi dugu. Ikasleen hiru laurden zumarragarrak dira eta laurdena urretxuarrak.

Zuena ikastetxe kristaua da, zertan datza egun kristautasun hori?

Ez dugu, esaterako, bataiatze dokumenturik eskatzen. Erlijio klasea ematen dugu, baina ez ditugu ikasleak otoitz egitera behartzen. Ikastetxearen kristau izaera transmititzen ditugun baloreetan islatzen da: solidaritatea, maitasuna, biolentzia eza, bakea... Urtero, Gandhi-ren heriotzaren urteurren eguna dela eta, festa bat egiten dugu; noizean behin elizkizunen bat egiten dugu; elkartasun ekintzak antolatzen dituen misio taldea dugu...

30 urte pasatxo daramatzazu klaseak ematen, hezkuntza eta haurrak asko aldatuko ziren urte hauetan guztietan...

Uuuuf... pilo bat! Batez ere azken 10 urteotan. Lehen ikasleek maixuei errespetuz hitz egiten zieten eta orain... Gurasoekin hitz egiteko modua ere aldatu da, astakeriak esaten dizkiete. Zer egingo zaio bada, halakoak dira gure ikasleak... Barruan duten onena ateratzen eta pertsona onak egiten saiatzen gara, hori da gure lana. Urteekin irakasle eta ikasleen arteko aldea handitu dela nabari dut. Ikasleak oso gazteak dira eta gu zahartzen ari gara. Telebista eta musika gustu, zaletasun... desberdinak ditugu. Bestalde, lehengo umeek ez zituzten oraingoek bezainbeste gauza eta ikastetxera gehiago etortzen ziren: liburuak edo komikiak hartzera, mendi irteeretan parte hartzera... Orain gurasoekin eskiatzera joateko aukera dute eta ikastetxearekin, berriz, Zumalakarregi museora joaten dira, esaterako.

Irakaskuntza mundua maite duzula argi dago...

Bai, batez ere egindako lanak erantzuna duela ikusten duzunean. Klaseko jende guztiak azterketa gainditu duenean poz handia hartzen duzu. Dena den, talde guztiak ezberdinak dira. Ez da egia ikasleak geroz eta okerragoak direla. Egungo ikasleek arlo bakoitzeko gutxiago dakite, baina arlo gehiago jorratzen dituzte. Informatika, ingelesa, orain frantsesa... ezin dute alor guztietan sakondu.

Zuzendaria izan zinen, klaseak ematen dituzu... baina La Salleko mendi taldea ere sortu zenuen...

Nahiko berandu hasi nintzen mendian eta txikitan ikasten ez bada, gero... Dena den, hemengo mendietan ibiltzeko nahikoa. Irteerak nik prestatzen ditudanez, inguruko mendi gehienak ezagutzen ditut. Euskadiko geografiaz asko dakit, lan honi esker. Irteera bakoitzean eskuorri bat ateratzen dugu ibilbidearen maparekin eta bestelako datu batzuekin. Dagoeneko 150 ibilaldi inguru egin ditugu. Lehen Bizkaiko mendiak ondo ezagutzen nituen eta orain Gipuzkokoak. Mendi irteerak hamabostean behin egiten ditugu, baina parte hartzaileen kopurua jaitsi egin da. Ostadarreko kidea ere banaiz eta haiek ere partaidetza jaitsi egin dela diote.

Dagoeneko erdi giputxia izango zara... ikasleek ez al dizute adarrik jotzen?

Bai, batez ere Athletic-en kontura. Jose Mari Amorrortu Realeko entrenatzailea deustuarra den arren, ni Clementezalea naiz. Laguna dut, Barakaldoko La Salle ikastetxean ikasi baitzuen eta bere irakaslea izan zen fraile batekin bizi izan bainintzen. Noizean behin gurekin bazkaltzera etortzen zen. Athletic beste erlijio bat da, Bilbon behintzat!



"Lehen ikasleek maixuei errespetuz hitz egiten zieten eta orain..."



Alfredok sortu zuen La Salleko mendi taldea.



Peio Galvez

Belodromotik bakea Euskal Herrira

Ziur nago, Bakea hitza, Euskal Herrian gure inguruan baino askoz gehiago entzuten dela. Bakea, elkarrizketa egunsentia arte, Autodeterminazioa, bizitzeko eskubideak, herriari galdetu behar zaiola... XXI. mendean euskal unibertsoko "Google" bilatzailearen hitzik bilatuenak dira. Beraz, zergatik ez gara bakean bizi?

Aspalditik, Ezker Abertzalea galdera honi erantzuna bilatu nahian dabil. Saiakera desberdinak egin eta gero (Lizarra-Garazi akordioa, adibidez), urtetako lana eta esperientziatik abiatuta, Batasunak prozesu baterako metodologia bat aurkeztu du Belodromoan. ORAIN bai, BAKEA lortzeko, betirako.

Eta zergatik orain bai, eta aurrekoetan ez? Batasuna-n uste dugu baldintza politikoak daudelako, hau da, orain dela 25 urte bezala, marko juridiko-politikoaren eztabaida irekita dago. Orduan, Gernikako Estatutuarekin eta Nafarroako Foru Hobekuntzarekin arazoa faltsuan itxi zen, gatazkaren oinarriak ikutu gabe: zenbait proiektu politiko (beraien artean gurea, independentismoa) ezin dira aurrera eraman.

Hogeita bost urte hauetan denetarik izan dugu, su-etenak, negoziazioak, biktimak, presoak, gerra zikina, tortura... Etapa honetan, Ezker Abertzaleak bakarrik aldarrikatu izan dugu aldaketaren beharra, hori bai, borroka konpromisoarekin eta sufrimendu askorekin. Baina, esan bezala, aukera berri bat ireki zaigu. Orain, Euskal Herri osoan, ia agente guztiak, PSEtik PNVraino, proiektu bat dugu herriari galdetzeko. Goazen hitz egitera bada!

Eta nola? Ba, orain arte balio ez duena baztertuz eta bide berriak arakatuz, ez dago irtenbide magikorik. Hasteko, Batasunak uste du prozesu luze batez hitz egin behar dela, edo beste hitz batzuekin esanda, Bakea ez da programa elektoral bat. Euskal herritar guztien eskubideak errespetatuak izateko elkarrizketa prozesua martxan jartzea da gure proposamena, herriari galdeketa batekin bukatuko duena.

Elkarrizketa hau benetakoa izateko, merezi duen seriotasunarekin aritzeko, eragileek konpromiso zehatzak hartu beharko dituzte. Batasunak, publikoak egin ditu eta beraien artean hiru hauek azpimarratu nahiko nituzke: Galdeketaren emaitza errespetatzeko konpromisoa, bide baketsu eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromisoa, eta eragile guztien parte hartzea ahalbideratzeko konpromisoa. Gainera, akordioan ONUren Adierazpenak onartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Teoriatik praktikara jaitsita, Batasunak, bi akordio maila planteatzen ditu: Bata, Euskal Herriko eragileen arteko akordioa, gaurko egoeratik abiatuta, gure Herria egituratzeko dauden proposamen guztiak aurrera eraman ahal izateko. Euskal Herritarren onespena beharko zuen eta sinatzaileek, Espainia eta Frantziarekin negoziazio prozesua martxan jarriko zuten. Eta bestea, ETA eta Estatuen arteko akordioa: Desmilitarizazioa, presoak, iheslariak eta biktimak.

Eta milioi eurotako galdera: zer egin behar du ETAk? Hasteko, argi dago beraien militanteen eskuetan gelditzen direla beraien erabakiak. Hori esan eta gero, askotan adierazi du bakearen aldeko hautua egin duela, bere lehentasuna dela, eta abar. Gainera, erakundearen ibilbidea objetiboki ikusita, mugarik gabeko elkarrizketa ahalbideratzeko pausuak ematea logikoena izango litzateke. Baina badago bi milioi eurotako galdera: Noizko Guardia Civil-aren tregua?

Hau da hainbeste komentario eta ilusio piztu dituen ekarpena. Batasunak aurrera pausu bat eman du, busti egin da. Beste alderdi politiko eta eragileei sakonki aztertzeko deia egin diegu. Mugituko al dira? Orain dela 25 urte egindako akatsak errepikatuko ditugu? Bakeaz hitz egin beharko dugu ala Bakean biziko al gara, behingoz?

Ferretería BRAVO, S.L.

-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIAK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

Zer iruditzen zaizu Gabonetan kanpora oporretara joatea? Eta Gabon Zaharretako sineskeriak?



Pilar Alvarez

Gabonak familian igarotzea iruditzen zait normalena. Gu kanpora, Portugal eta Errioxara, joaten gara; baina familia bertan dugulako. Urte batean gu joaten gara eta hurrengoan beraiek etortzen dira. Urte Zahar gauean ez dugu ezer berezirik egiten, afaldu eta zer edo zer hartzera ateratzen gara.



Rafa Zabalo

Gabon gaua etxean egotea gustatzen zait, baina Gabon Zahar gauean etxetik kanpo egotea ez zait axola. Iaz Paris eta Amsterdan-en izan nintzen Oñatiko lagun batekin batera. Gabon Zahar egunean ez dut ezer berezirik egiten, ez dut superstizioetan sinesten.



Javier Villalain

Ondo iruditzen zait, Gabonak ere oporrak baitira. Normalean ni ere kanpora joaten naiz. Gabon Zahar gauean ez dut aparteko ezer egiten. Etxean denok batera afaltzen dugu eta lasai egoten gara. Ez dut ez superstizioetan ez erlijioetan sinesten.



Trini Ponce

Ondo iruditzen zait. Ni ez naiz kanpora joaten, baina ahal izango banu joango nintzateke. Gainera, abuztuan lan egiten dut eta noizbait Gabonetan kanpora joango naiz beharbada. Dena den, Gabonetan etxean egotea ere gustatzen zait. Gabon Zahar gauean ez dugu ezer berezirik egiten.

Montajes e Instalaciones Electricas HERCE Elektrogintza, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

PAKO VIERBUCHER
Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala
Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga

ETXABURU
merenda-lekua
Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



Josu Aztiria

AHT vs. Urolako Trena

Y, H, X, Ezkion izango dela geltokia, ondoren Ordizitik pasatuz Nafarroarekin lotura, garraiobide izango dela, gero ez, Tren de Alta Velocidad, Tren de Velocidad Alta, Tren de Altas Prestaciones... Informazio falta eta marketina nagusi afera honetan, eta honelako proiektu bat gizartea konbentzitzeko hainbeste iragarki eta justifikazio ematen direnean seinale txarra.

Mega proiektuen sasoian gaudela dirudi eta honelako egitasmoekin gertatzen den bezala goitik diseinatutako proiektuak izaten dira normalean, gailur, goi bilera eta horrelakoetan. Gizartera eztabaida iristen denerako, gaiak oso lotuta eta diseinatuta daude. Euskal Herria berdin, eztabaida finantziaziora edo H, X edo Yra murriztu nahi dute, trenaren benetako balioaz eta garapen ereduaz eztabaidatu beharrean.

Desinformazioa izugarria dago gai honetan. AHT trena justifikatu eta aztertuko duen txosten bat ere ez da aurkeztu, gizarteak oro har ez du informaziorik, eta politikarien ahotik egun batean gauza eta beste batean beste bat entzuten da. Beti berdin, lehendabizi proiektua egitea erabaki eta ondoren gizarteari konbentzitu ona dela, eta egiten ez bada apokalipsia. Despotismo ilustratua: Dena herriaren alde, baina herriarekin kontatu gabe.

Badago txosten bat oso intereantea (www.bakeaz.org/CB63.pdf) Roberto Bermejo EHUko irakasleak idatzia. Irakasle honek argudio "ideologikoak" alboratu eta argudio ekonomizista hutsekin ere (proiektuaren defendatzaileen eskeman eta joku zelaian) proiektuaren zentzugabekeria utzi du agerian. Erregea billuzik. Garapen ereduaz eta arrazoi ekologikoez aparte -inolaz ere alboratu ezin daitezkeen argudioak, kontuz!- diseinatzaileen joku zelaian jokoz kanpo uzten dituen argudioak dira. Beste gizarte eredu bat aldarrikatzeaz aparte, arerioaren argumentuen oinarri falta datuekin azaltzea oso garrantzitsua da.

Garraio azpiegitura vs. hazkunde ekonomikoa

AHT trena eta bestelako mega proiektuak gizartearen ongizaterako eta ekonomiaren hazkunderako ezinbestekoak dira, proiektu horiei martxan jartzen ez bada atzean geratuko omen gara betiko (Lemoizko zentralarekin argumentu berdinak erabili ziren...). Diskurtso apokaliptiko honen aurrean, honelako azpiegiturek ez dutela hazkunde ekonomikorik ekartzen ezinbestean dio irakasle honek eta horretarako Irlandaren kasua jartzen du eredutzat. Azken hamarkadan gehien hazi den ekonomia da eta irla bat da, hau da, Europako errepide-sare eta azpiegituretatik kanpo kokatu da.

Probintzi barruan mugitzen gara

Egia da, Euskal Herrian sekulako saturazioa dagoela errepideetan, kamioiak non nahi, istripuak, errepidearen hegemonia trenaren aurrean eta abar, horrek ingurugiroari eta osasunari dakartzan arazo larri guztiekin. Hori ikusteko, Donostira edo Arrasatera egunero kotxez joatea besterik ez dago. Euskal Herrian ematen den garraio mugimenduen %90 inguru probintzi barrukoa omen da (Zumarraga-Donostia esaterako) da eta beste gainerakoa hirien artekoa (adibidez, Donostia-Bilbo). Eta hirien arteko garraioa gehien erabiltzen dutenak ikasleak dira. Orduan, AHT trena hiriak lotzeko bakarrik bada eta gainera merkantziak garraiatuko duen ez badago argi, ba al du zentzurik?

Ez dago dirurik

Finantza eta errentagarritasun aldetik ere egiten du azterketa irakasle honek, eta proiektua finantziazioa oso arazo larria dela dio. Ikusi besterik ez dago, Espainiako Gobernuarekin egon diren ika-mikak, proiektua finantzatzeko arazoak direla-eta.

Beraz, AHT trenak hazkunde ekonomikorik ez badakar, garraioaren problematikarik ez badio konponbiderik ematen eta gainera finantziazio arazo larriak baditu, zergatik daude hain tematuta?

Sinplea. Negozio itzela delako. Enpresa handi eta konstruktorentzat sekulako pagotxa delako. Eta diru asko dago jokoan.

Garraioaren arazoa benetan konpondu nahi bada, Euskal Herria lotu eta bertebratuko duen trenbide sarea eratzea izan daiteke soluzioa. Ekologikoki eramangarria, finantzatzeko errazagoa eta probintzi barruko saturazioari irtenbidea emango lioke. Baina, agian, kontua ez da gizartearen arazoak konpontzea, negozioa egitea baizik. AHTrekin, Gipuzkoarenarekin eta etorriko direnekin.

SASIETA
MANKOMUNITATEA

Zorionak eta urte berri on !!

SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.
2005ean ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Eta gogoratu, aurten ere
*gabonetako **PINU BILKETA** egingo dugula ondoren ongarri bihurtzeko.*







autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Segurtasuna Interneten, konpondu gabeko arazoa

Goierri-Urola Garaia
urtarrilak 18
ORDIZIA
Goierri Lanbide Eskola

Ordutegia: **18:00-20:00**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Hirugarren mintegi honetan, **eraso, arau-hauste edo ardura ezaren aurrean zure negozioa nola egokitu eta babestu** dezakezun erakutsiko dizugu: birusak, segurtasun kopiak, zabor posta, Datuak Babesteko legea, etab.

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:

Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

euskadi
e·gipuzkoa
SPRI

Juanito Arbizu, udaletxea



Dagoeneko konturatuko zineten bezala, Goierriko Hitzaren sorreraz geroztik, Otamotzek zenbait aldaketa izan ditu. Urrian zorion agurren atala kendu genuen, azaroan albiste laburrena eta, dena kentzea ez denez, abenduan atal berriekin gatoz. "Zuek bai jakin!" izeneko atal honetan, herriaren alde lan egin duen herritar bati elkarrizketa egingo diogu. Lehen elkarrizketa Juanito Arbizu Urretxuko alkate ohiari egin diogu. Juanitok trantsizioa deritzon garaian, 1976tik 1983ra, Urretxuko Udaletxeko ateak herritarrei ireki zizkien eta beste hainbat alkaterekin batera ikurrinaren legeztatzea lortu zuen, besteak beste.

Nolatan hasi zinen politikan?

Herriko lagun asko dexente mugitu ginen, Udal jarduera aldatu nahi baikenuen. Baina oraindik Franco bizi zen eta alderdi politikoak klandestinitatean zeuden. 1972-1973 inguruan aurreko alkateak zinegotzi izatea proposatu zidan. Herriaren hobebeharra kontuan izanik, inongo eragozpenik ez nuela, baina nirekin batera gehiago hartzeko esan nion. Ezetz esan zidan eta nik ere ezezkoa eman nion. Izan ere, alferrik saiatuko nintzen ni bakarrik gauzak aldatzen. Franco hil ondoren, udalen %50ean, alkate berarekin denbora gehien zeramaten udaletan, alkatez aldatzea lortu zen. Urretxu udal horietako bat zenez, gaztedia eta garai hartan legezkoak ziren elkarteak alkate aldaketan lanean hasi ziren eta nire izena proposatu zuten. Garai hartan alkatetzarako bozketa oso mugatua zen, zinegotziek soilik eman baitzezaketen bozka. Nire aldeko herritarrek egindako presioari esker, 4 eta 3 irabazi nuen.

Frankismo garaiko alkateak zinegotzi izatea eskaini bazizun eta udal jarduera aldatu nahi zuten herritarrek alkatetzarako proposatu bazintuzten, zer edo zer izango zenuen...

Urretxun, festa kontuan, gaztediak lan handia egin du beti eta Udalak utzi egin die. Aspaldiko urteetan Jai batzordean aritu nintzenez eta festen antolaketan ardura nagusia nuenez, ezaguna nintzen.

Zer nolakoak izan ziren alkatetzan eman zenituen lehen hiru urteak?

1976ko otsailaren 1ean hartu nuen kargua. Nire "obsesioa" herriak Udal-jardueran parte hartzea zen eta horretarako batzordeak sortu nahi nituen. Zinegotziek ez zidaten inongo oztoporik jarri, baina idazkariak bai. Garai hartako legedian oinarrituz, batzordeak eratzea legez kanpokoa zela, Gobernadore Zibilak batzordeak bertan behera utziko zituela... esan zidan. Egoera hura behin-behinekoa zela pentsatzen nuenez, ez nintzen batzordeak eratzen saiatu. Behin-behineko egoera hura luzatu egin zen, baina zenbait gauza lortu genituen: Francisco Franco enparantzari Gernikako Arbola izena jarri genion, alkateen mugimendukook ikurrinaren legeztatzea lortu genuen...

Herria hobetzeko dirua lortzeko Donostiara makina bat aldiz joan omen zinen...

Gaur egun Aldundiak

herritarrei ireki zien alkatea



Generalisimo izena kendu eta Gernikako Arbola jarri zutenekoa.



"Alkateok gidatu genuen Euskal Herritartasunaren aldeko mugimendua"



-Ikurrina lehenengoz Urretxuko udaletxeko balkoian jarri zutenekoa.
-Erdiko argazkia: Korrika 2an lekukoa eramaten.

biztanleko diru kopuru bat ematen du, baina garai hartan dirulaguntzak borrokatu egin behar ziren. Ate gehien jotzen zituenak eta diputaturen baten lagun egiten zenak lortzen zuen diru gehien. Eskolak gestioak egiteko egun bat utzi zidan eta astearteetan Donostiara joaten nintzen. Nola hala institutua egiteko, lokal hau egokitzeko (egun Zintzo-Mintzoren egoitza eta garai batean Aterpe zena), Santa Barbarako bidea egiteko... dirua lortu genuen.

...

Garai hartan ere erreka drenatu zen lehenengoz. Apur bat lehenago errekak gainezka egin zuen eta Zumarragako bizilagun batzuk niregana etorri ziren, bertako alkatearekin ez baitzuten harreman ona.

Aipatu bezala, ikurrinaren legeztatzea lortu zuen alkateen mugimenduko kidea ere izan zinen.

Ekimenaren bultzatzaileak Jose Luis Elkoro Bergarako alkatea eta "Txatillo" Altuna, Arrasateko alkatea, izan ziren. Inguruko alkateekin harremanetan jarri ziren eta bat egin nuen, Ormaiztegi, Gabiria, Zaldibia, Legazpi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Usurbil eta Oiartzungo alkateekin batera. Ondoren beste herrietako alkate batzuk ere bat egin zuten. Helburua Euskal Herritartasuna aldarrikatzea zen. Gauza batzuk lortu ziren, tartean ikurrinaren legeztatzea. Horretarako, Madrilera joan ginen Martin Villarengana eta San Sebastian bezperako 20:00etatik aurrera ikurrina ateratzea legezkoa izatea lortu genuen. Artean ez zegoen Eusko Jaurlaritzarik eta alkateok gidatu genuen Euskal Herritartasunaren aldeko mugimendua. Alderdiek indarra hartu zutenean alkateen mugimenduak bere zentzua galdu zuen.

Lehen Udal Hauteskundeak, 1979koak, ordea, zuen talde independienteak irabazi zituen.

Herriko zenbait lagun zerrenda bateratua aurkeztearen aldekoak ginen. Azken unera arte EAJ, HB, PSOE eta PCErekin hitz egin genuen, baina alderdiek euren siglekin ateratzea erabaki zuten. Hori dela eta, *Agrupación Electoral Independiente* atera genuen eta irabazi egin genuen. Guk zazpi zinegotzi lortu genituen, EAJk lau eta PSOEk eta PCEk bana. Zenbait jendek HBkoak ginela zioen, baina HBk bere zerrenda atera zuen.

Zergatik uste duzu hain erraz irabazi zenutela?

Nire presentziak garrantzia izango zuen. Izan ere, hiru urtetan alkatea izana nintzen eta jendea pozik zegoen. Festen ostean emakume talde batek Segura Irratian Gernikako Arbola kanta eskaini zidala gogoratzen dut, festak zein ondo irten ziren eskertzeko. Bestalde, gure zerrendan jende oso ezaguna zegoen: Jose Luis Garmendia, Jose Mari Lasa, Josemi Lasa, Joxe Leunda, *Txantxi*, Anjel Mari Ruiz... Begi onez, auzo desberdinetako jendea hartu genuen. HBri botoa emango zioela zirudien jende askok guri eman zigun botoa, baita PSOE eta PCko askok ere.

Hauteskundeen ostean Udaletxeko ateak parez pare irekitzea lortu omen zenuen...

Udaletxera sartzeak jendeari bel-



1981: Mausoleoko obran, Jaurlaritzako Labaienekin eta Aldundiko Aizarnarekin.

"*Egin zezaketen okerrena egin dute: zure ondoan jartzea*, esan zidan Labaienek"



Juanito alkate zela antolatu zen lehenengoz Irimoko igoera: 1 zenbakia eraman zuen eta azkena heldu zen.

dur ematen zion eta eraikina bera ere oso gaizki zegoen. Udal jardueran jendearen parte hartzea bultzatzeko batzordeak eratu genituen eta herriari udal jardueraren berri emateko *Kaixo* aldizkaria sortu genuen. Batzordeak irekiak ziren eta *Kaixo*n ordua eta eguna iragartzen genituen. Batzorde iraunkorra zinegotzi guztiok osatzen genuen eta deus ez kobratzea erabaki genuen. Batzuek tontotzat hartu gintuzten, baina gure arteko harremana estutzeko balio izan zuen.

Alderdietako kideekin zenuten harremana ere ona al zen?

Udalbatza osatzen genuenon arteko harremana ona zen arren, alderdietako kideek independienteok hauteskundeak irabazi izana ez zutela ondo hartu iruditzen zait. Hori dela eta, 1979tik 1983ra bitartean hurrengo hauteskundeei begira lan egin zutela uste dut. Gure lana gutxiesten, lortutakoei merezitako garrantzirik ez ematen... saiatzen ziren.

1979 eta 1983 bitarteko jarduera oparoa izan al zen?

Garai hartan kiroldegia egin zen, Kultur Etxearen eraikina eta Eguneko Zentroaren lurrak erosi ziren, Aspace ireki genuen... Kultur Etxearen eraikina eta inguruko lursaila erosteko Madrilera joan behar izan genuen jabearekin, Pedro de Yrizar Ohorezko Euskaltzain eta ingeniariarekin, hitz egitera. Deus ere kobratu gabe Udalarentzat arkitektu lana egiten ari zen Txema Mendiola lagunari Aizpuru-Enearen balorazioa egiteko eskatu nion eta 19 milioi pezetatan tasatu zuen. Zorionez Pedro de Yrizar pertsona bikaina zen eta, gainera, ez zuen diru arazorik. Kultur arlorako erabiltzen bagenuen, 19 milioitan salduko zigula esan zigun.

...

Zer edo zer lortu behar genuela buruan sartzen zitzaigunean sekulako ahaleginak egiten genituen. Pedro de Yrizarrek behin Kutxaren Donostiako egoitzan hitzaldia eman zuen eta han izan nintzen beste zazpi pertsonekin batera. Jose Mari Lasarekin Madrilera Yrizarrengana Aizpuru-Enea erostera joan nintzenean, bere hitzaldian izan nintzela esan nion. Yrizarrek *berehala egiaztatuko dugu*, esan zidan. Jose Marik *egia al da?*, galdetu zidan urduri. Yrizar hitzaldi hartako argazkiarekin etorri zen eta bertan nengoela ikusi zuen.

1981ean Iparragirreren heriotzaren mendeurrena ospatu zen...

Lan handia egin zen eta primeran irten zen. Egun errentagarritasuna begiratzen dute askok, baina niretzat errentagarriena herriak zer edo zer izatea zen. Dena den, azkenean superabita izan zen. Udalaren gonbidatuen Etxeberriko bazkaria ordaintzeko ere dirua kendu nion Ramon Labaien Kultura sailburuari! Bazkari hartan nire emaztea Garaikoetxearen ondoan jarri zuten eta ni, berriz, Labaienen ondoan jarri ninduten. *Egin zezaketen okerrena egin dute: zure ondoan jartzea!* esan zidan.

Alkatetzan eman zenituen urteak gatazkatsuak ere izan ziren...

Navarro tabernan droga salmentan zebilen zumaiar bat hil zuten, esaterako. Udalean bizitako unerik gogorrena izan zen. Gehiengoa genuenez, Udalak gertaera gaitzetsi beharrean deitoratu egin zuela gogoratzen dut. Bestalde, manifestazio ugari izaten ziren. Behin Goardia Zibilari aurre egin behar izan nion Urretxuko aldapan. Bestalde, Udalak herriko jaietan herriko bandera jartzea eta gainontzeko jai egunetan ikurrina jartzea erabaki zuen. Urretxuko jaietan ikurrina frontoian jarri genuen eta gobernadorearengana herriko jaietan ikurrina Udaletxean jarri nuela eta herriko medikuarekin manifestazioa antolatu nuela heldu zen. Dionisiorekin ondo konpontzen nintzen, baina ez manifestazioa antolatzeko adina! Alkateen mugimendukook poliziaren jarrera salatzeko berarekin izan genuen bilera batean Menendez Manjon gobernadoreak ikurrina udaletxeko balkoian jartzeagatik kartzelan sartuko ninduela esan zidan.

Faustino Orbegozoren bahiketa ere urte haietan izan zen...

Bahiketaren berri izan bezain pronto etxera joan nintzen Orbegozo sendiarekin harremanetan jartzera. Mehatxu deiak jaso nituen eta Donostiara joan nintzen bizitzera, koinataren etxera, denboraldi baterako. Ez naiz sekula saiatu mehatxu horien atzean nor zegoen jakiten.

Zeintzuk izan ziren alkatetzan emandako unerik pozgarrienak?

Institutua egingo zutela agindu zigutenean, poz handia hartu nuen. Iparragirreren mendeurreneko ekitaldiak, herria hobetzen ari zela ikustea... oso pozgarria zen.

Aurrera ateratzea lortu ez zenuten egi-

tasmoren bat?

Saihesbidea egitekotan izan ginen. Badirudi orain egingo dela. *Madaya*k buruko min handiak ematen zizkigun. Frantziatik kamioi handiak etortzen ziren, Labeaga erdian jartzen ziren eta *Madaya*ra joan behar izaten nuen kamioiak heldu aurretik udaletxera deitzeko esatera.

Zer dela eta ez zen zuen plataforma 1983ko hauteskundeetara aurkeztu?

Hautagai zerrenda independienteek iraungitze data dute, oso nekagarria baita. Alderdi baten izenean aurkezten diren udal ordezkariek, berriz, alderdiaren babesa dute. Gainera, 1983rako alderdiek indarra hartu zuten. HBk martxa hartua zuen eta talde independienteko batzuk HBn sartu ginen. Alderdiren batean dauden taldeko kide guztiak HBn daude. HBkoak ginela leporatzen zigutenak ez zeuden guztiz erratuta, baina gure taldeak ez zuen inongo menpekotasunik eta geure erabaki propioak hartzen genituen.

Independienteen artean giro bikaina omen zenuten...

Hain zen ona gure arteko harremana non oraindik urtean bitan elkartzen garen, San Martinetan eta San Juanetan.

Alkatetza utzi ostean, udal jarduera erabat alde batera utzi al zenuen?

Udal jarduera alde batera utzi nuen, baina Gainzuriko guraso elkartean, Musika Ikastetxean... lan egitea tokatu zait. Bihotzekoa izan nuenetik lasaiago nabil.

Udal jarduera asko aldatu dela uste al duzu?

Lehen hauteskundeetarako zerrenda osatzea asko kostatzen zen. Egun jende gehiago dago zerrendetan joateko prest. Gainera, alderdiek euren zerrendako lehenak prestatu egiten dituzte lau urtetan hauteskundeetan lortutakoa ez galtzeko. Bestalde, lehen denok bat egiten genuen Francoren aurka, baina egun bakoitzak bere interesen alde egiten du.



Etxe-Azpi elkarteko lagunekin "Emaztegabeen eguna" ospatzen.

Nafar kemena

Juanito Arbizu Urretxun jaio zen, 1941eko abenduaren 15ean, Nafarroako Gares herrikoa zen bere aitak ireki zuen *Navarro* tabernan. Juanitoren anaia-arrebak ere *Navarro* tabernan jaio ziren. "Aitak egun anaiak daraman ardo biltegia ere bazuen, amaren aitak sortutakoa. Aitonak Etxarritik ardoa ekartzen zuen, *Unanue* tabernara batez ere".

Juanitok sekula ez zuen familiako negozioetan lan egin. "Tabernan lan egiteko adinera heldu nintzenean seminariora joan nintzen ikastera eta gurasoek taberna eskualdatu zuten. Seminariotik ikasketak bukatu aurretik irten nintzen eta magisteritza egin nuen. Beti irakaskuntzan lan egin dut, Hermanotan. 1967an sartu nintzen eta 1995ean jubilatu nintzen".

Jubilatu ostean, bizitza lasaia darama. "Donostiara joaten gara asteburua pasatzera, etxeko lanak egiten ditut, pasiatu, bazkariren bat...".

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BOSS ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA


Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52


BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

Gorka Quevedo: "Zapatister

Quevedok ia hiru hilabete e



Gorka Quevedo zumarratarra Chiapas-en izan da ia hiru hilabetez, Askapena elkartearentzat nazioarteko begirale lana egiten. Bidaia hau Gorkak elkartasun brigadekin egiten duen bigarrena da, iaz Kuban izan baitzen eskola bat eraikitzen. Munduko desorekak sortzen dion kezkak eta nazioarteko errealitatea ezagutzeko gogoak bultzaturik, urtero antzeko proiekturen batean parte hartzeko asmoa du. Hona hemen Chiapas-era joan aurretik eta bertan zela Gorkarekin izandako solasaldietan aipatutakoak.

Zer dela eta erabaki zenuen Chiapasera joatea?

EZLNk daraman borroka mundu mailako interesgarrienetakoa da: 512 urtez kolonizatuta egon diren indigenen altxamendua oso zabaldua da, beraien antolaketa eredugarria iruditzen zait... Mexikoko gobernuak San Andreseko akordioa betetzen ez duenez, euren betiko bizimoduan oinarrituriko gizarte eredua antolatzea erabaki dute. Komunitate Zapatistetan euren legea dute, demokrazia eredu parte hartzailea dute, euren justizia ez da errepresiboa... Euren burua antolatzea lortu dute eta horregatik izorratu nahi dituzte. Hori dela eta, beharrezkoa da beraiei laguntza ematea eta eredu hori mundu osoan ezagutaraztea.

Orain arte Amerikara joan zara. Arrazoi bereziren batengatik?

Benetan gustatuko litzaidakeena Ekialde Hurbilera joatea da eta datorren urtean saiatuko naiz, baina Palestinara joatea benetan zaila da. Bestalde, Latinoamerika eta Ertamerikako mugimenduek betidanik piztu dute nire arreta. Herrialde haietan desberdintasun sozial handiak ematen dira eta giza mugimendu interesgarriak daude. Afrikan eta Asian ere badira halakoak, baina hizkuntzagatik edo, Hegoamerikako egoera arreta handiagoz jarraitu dut.

Palestinara joatea ez da erraza, baina Chiapasera joatea ere ez da erraza izango...

Ofizialki ez naiz brigadista izan, turista espainiarra baizik. Era erdi klandestinoan joan ginen. Maien bidea egitera edo izeba bisitatzera goazela diogu, baina beraiek gezurra den susmoa dute. Saltsaren erdian harrapatzen ez bazaituzte, ezin dizute ezer egin. Gainera, aberatsa, txuria eta "espainiarra" naizenez, lasai izan naiz. Nire bizitzak asko balio du. Badakite ezin didatela ezer egin: niri zerbait egingo balidate, Zapaterok negar egingo luke. Estatu arteko harreman ona mantendu nahi badu, estatu mexikarrari ez zaio komeni niri ezer gertatzea. Komunitate zapatistetara joateko kontrolak pasa behar izan ditut, ni beldurtzen saiatu dira... baina, asko jota, etxera bidaliko ninduten. Burundikoa edo izango banintz, beste kontu bat izango litzateke...

Zer moduz Chiapaserako bidaia?

Oihane Uribe-Etxeberria izeneko Lakuntzako neska batekin joan nintzen. Urriaren 3an *Junta del Buen Gobierno*-rekin hitz egitera joan ginen eta Jetzvo izeneko komunitate txiki batera joatea gomendatu

n antolaketa eredugarria da”

nan ditu Chiapasen nazioarteko begirale lanetan

ziguten. Bidaia kamioi "klandestino" batean egin genuen gauez, kontrolak izatea zailagoa delako. Jetzvo-n 24 egun eman genituen.

Gogorra al da Zapatisten bizitza?

Zapatista izatea oso gogorra da. Erresistentzian egotea eta bizitzea esan nahi du. Esaterako, Jetzvo-ko haurrak ezin dute eskolara joan, ezin dute elizan sartu (eliza beraientzat oso garrantzitsua da), ezin dute herriko urtegitik ura hartu, ezin dute gobernuaren laguntzarik jaso (beno, egia esan, ez dira laguntzak, jendea erosteko mekanismoak baizik), umeak ezin dituzte bataiatu (beraz, ez dira inongo dokumentutan ageri, klandestinoak dira). Horrek egundoko eragina dauka: paperetan agertzen ez bazara, ezin duzu osasun zerbitzu publikora jo, ezin duzu epaitegi batera jo... ez dute inolako eskubiderik. Hori guztia dela eta, familia askok borroka utzi dute. Gainera, ez baduzu PRD bozkatzen, mehatxatzen zaituzte. Egun, Jetzvo-n 132 familia bizi dira eta 42 zapatistak dira.



Zapatistek egindako mural baten aurrean.

“Familia gehienak kafetik bizi dira eta gobernuak kafea suntsitzen duten izurriteak zabaltzen ditu”



Gorka eta Oihane argazkian ageri diren haurren etxean izan ziren.

Zergatik bidali zintzuteten bertara?

Esan bezala, PRD alderdiak herria goitik behera kontrolatzen du eta Zapatistei ez diete uzten ura hartzen herriko urtegitik. Euren depositoak hustu egin zirenez, inguruko herrixka, komunitate eta eskualdeetako zapatistek martxa bat egin zuten. Helburua ura hartu eta balde eta ontzietan eramatea zen. 4.000 zapatista inguru bildu ziren, baina Paste izeneko herritik igaro zirenean PRD alderdiko kideek errepidea moztu eta tiroka hartu zituzten zapatistak. Polizia ere bazegoen, baina erosatzaileak babestu zituzten, ez erasotuak. Jetzvo-ko zapatistek etxeak utzi eta mendira joan behar izan zuten ihesi. Mendian izan ziren egunetan, zapatista guztien etxeetan sartu ziren, zuten apurra lapurtu zieten eta etxeak txikitu zituzten. Hori dela eta, apirilaren 25etik aurrera, nazioarteko jendearen laguntza eskatzen da.

Zer moduz joan ziren Jetzvo-n igarotako egunak?

Zapatisten laguntza gabe, ezin ginen etxetik atera. Ordu gehienak, irakurtzen eta herria "zaintzen" igaro genituen. Zapatista batek esan zigun bezala, eurek ere badute polizia: gu. Ez nuen uste inoiz polizia batekin alderatuko nindutenik! Hasieran apur bat galduta sentitzen ginen. Jendeak tzotzila hitz egiten du, eta apenas dakite gazteleraz. Gure eginbeharra bertan egotea izan da, horrela, zapatistak askoz ere lasaiago baitaude. Egia esan, egun batzuk nahiko aspergarriak izan ziren, baina zuenaren arabera, soldaduak ezin dira komunitate zapatistetatik igaro. Noski, soldaduak lasai asko mugitzen dira hortik, izua eta beldurra indigena zapatisten artean zabalduz. Bertan igaro nituen bi asteetan komunitatean dagoen kontrol gune batean egon nintzen, igarotzen ziren kamioi, soldadu, tanke eta mugimendu militar guztiak zenbatzen eta idazten. Horrekin txosten moduko bat egin nuen. Helburua oso argia da: gai honetan ere Mexikoko Gobernua gezurretan ari dela erakustea.

Handik beste nonbaitera joan al zinen?

La Realidad izeneko komunitatera joan nintzen. Komunitate hori Lacandona oihanaren bihotzean dago, eta sinbologia handia du. Izan ere, hura izan

Nora joan zinen ondoren?

Garrucha komunitatera joan nintzen, oihanera. Komunitatea *Territorio libre zapatista* da: zapatistek agintzen dute. Euren gobernu propioa dute, ehunka urtez mayen demokrazia parte-hartzailean oinarrituta. *Municipio Autónomo Rebelde Zapatista* hori Mexikoko Armadak Chiapasen duen bi base militar nagusien artean dago. Mexikoko Gobernuak zin egin ematen ari zaren laguntza eta zein esker onekoak diren ikusita, guztiak merezi du.



Kuban, beste euskal brigadista batzuekin.

"Elkartasun mota asko daude eta bakoitzak ahal duena egiten saiatu behar du"


Kuban lagun egindako neska txiki batekin.

zen zapatismoa sortu eta zabaldu zen komunitate aitzindarietako bat. Horren leku garrantzitsua eta sinbolikoa izanik, gobernuak hor benetan estutu du. Diru asko gastatu dute familiak erosteko. Hala ere, familien %75-80 inguru zapatistak dira. Nire lana nazioarteko begirale gisa egotea izan zen. Gobernuak intentsitate txikiko gerra dinamika darama orain. EZLN-ren komandantzia nagusia inguruan dagoenez, enfrentamendu militarra saihestu nahi dute, estrategia politiko gisa. 2006an hauteskundeak direnez, ziurrenik estrategiaz aldatu eta gogor ekingo diote. Bitartean komunitateko familia zapatisten aurkako gerra ekonomiko bat hasi dute. Komunitateko familia gehienak kafetik bizi dira eta gobernuak kafea suntsitzen duten izurriteak zabaltzen ditu.

Zein da egun Mexikoko gobernuaren jarrera iritzi publikoari begira?

Gobernu mexikarrak egun Chiapasen daraman politika gobernu espainiarrak Euskal Herrian daraman antzekoa da: gatazka politikorik ez dagoela diote. Normaltasun sentsazioa transmititu nahi dute. Baina Vicente Foix-ek kongresuan Chiapasen ez dela ezer gertatzen esaten duenean, nazioarteko erakundeetako ordezkariok salatutako giza eskubideen urratzeak erakutsiko zaizkio. Zoritxarrez, Mexikoko gobernuak botere handia du, yankee-ekin oso harreman ona du, eta gure lanak oihartzun oso txikia du.

Oihartzun hori lortzea ere zuen lana izango da...

Gure lana ez da han egindakoa soilik. Itzultzean hango egoera zein den jakinaraztea oso garrantzitsua da. Askoz ere garrantzitsuagoa da hitzaldi sorta bat antolatzea eta ehun lagun konbenzitzea, festetan txosna jarri eta ateratako diruarekin sendagaiak bidaltzea baino. Chiapasen Gipuzkoan baino BBVA sukurtsal gehiago daude, Repsol leporaino sartuta dago, Telefonica indigenak euren lurraldeetatik bidaltzen ari da... Hori ezagutarazi eta zenbait produktu kontsumitzeari uzten badiogu, beharbada, euren politika aldaraz dezakegu. Dena den, oso zaila da; Telefonicak, esaterako, Espainiako komunikabide guztiak kontrolatzen baititu.

Nolatan nazioarteko gaiekiko zaletasun hori?

Nazioarteko egoerarekiko, Euskal Herriak bezala bere askatasunaren alde lan egiten duten herrialdeetako mugimenduekiko... interes berezia izan dut beti. Beharbada, guk ere gure arazoa bizi dugulako. Ikasteko modurik onena bertara joatea denez, beti izan dut bidaiatzeko gogoa. Beti ere, laguntzera eta bertakoek esaten dizutena egitera joan behar duzula oso argi izanik, ez ideiak inposatzera.

Joan aurretik formakuntzarik jasotzen al duzue?

Tailerrak egitea beharrezkoa da. Zenbait arau unibertsalak dira (tokian tokiko kultura errespetatzea, ikastera eta ez inposatzera joan behar duzula jakitea...), baina toki bakoitzak bere berezitasunak ditu. Ez da gauza bera Kubara joatea edo Chiapasera joatea. Izan ere, Kubara bertako agintarien babesaz joaten zara eta Chiapasera, berriz, agintariek zapaltzen duten mugimendu bati laguntzera.

Zerk bultzatzen zaitu hemengo erosotasuna utzi eta, esaterako, Chiapasera joatera?

Kontua ez da Che Guevara edo Calcutako Teresa izatea, baina, munduko egoera hobetu nahi badugu, denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten. Hiltzen naizen egunean, alu samarra izan arren, neure erara munduaren alde zerbait egiten saiatu naizela esan nahi nuke. Elkartasun mota asko daude eta bakoitzak ahal duena egiten saiatu behar du. Ez litzateke ona izango, eta ezinezkoa izango litzateke gainera, mundu guztia kanpora joatea. Norberak gizarte hobea lortzeko bere esparrua bilatu behar du: batzuek nazioartean askatasunaren alde lan egiten duten mugimenduei laguntzen diete eta beste batzuek euskararen, ekologiaren, gaztetxeen... alde lan egiten dute. Globalizazioak, liberalismoak, kapitalismoak... inposatu nahi diguten mundu honi aurre egiteko modu asko daude.

...

Ez dut martir konplexua, baina kanpoko bidegabekeriak guk eta gure bizimoduak sortuak dira. Gu ondo bizi bagara, munduan beste asko gaizki bizi direlako da. Michelinek, esaterako, Chiapasetik aterako du nire autoko pneumatikoak egiteko erabiltzen duen kautxoa. Hainbeste lapurtzen diedanez, zerbait eman nahi diet. Mundua aldatu beharra dago, Gerra Hotza amaitu zenetik sekula baino gatazka gehiago baitaude.

Herriko hainbat taldek eta Gaztelekuk presoen aldeko diska atera dute



Diskaren aurkezpenaren ostean kontzertua eskaini zuten.

Gaztelekuk, Urretxu-Zumarragako hainbat musika talderen laguntzaz, presoen aldeko diska kaleratu du hilabete honetan. *Zuengatik zuentzako, gurekin nahi zaituztegulako* lemapean egin den diskaren aurkezpena Gaztelekun bertan izan zen eta jende ugari elkartu zen. Ekimenaren sustatzaileek "Irimo eta Belokiren magaletatik, gogoz kontra, urrun egotera behartuak dauden guztiei" eskaini zieten diska. Aurkezpenaren ostean, diskan parte hartu duten taldeetako batzuek kontzertua eskaini zuten.

Diska ateratzeko ideia Zuhaitzaren Soinua Kolektiboari otu zitzaion. Zuhaitzaren Soinuakoek egitasmoa Gazte Asanbladakoei aurkeztu zieten eta lanean hasi ziren. Grabaketa lanak maiatzean egin zituzten Bartzelonako "El Crack" estudioetan eta ekoizpena Gaztelekuk egin du. Aipatu, SGAE-k, *Sociedad General de Autores y Editores*-ek, "El Crack" estudioari egile eskubideak eskatu dizkiola; nahiz eta ekimenaren sustatzaileek ez duten halakorik eskatzeko inongo asmorik.

Guztira herriko zazpi musika taldek parte hartu dute egitasmo honetan eta diskan Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa, Biffs & Johonny, Meatxu, Middel Finger, Repugnancia Social eta Spezial Guest taldeen kantuak entzun ditzakegu. Baita lagun talde batek diskarako espreski sorturiko rantxera dotorea ere. Parte hartzaile guztiek diska "elkarlanaren eta ilusioaren fruitua" dela azpimarratu dute.

Diska 6 eurotan jarri da salgai herriko tabernatan eta Gaztelekun. 500 kopia atera dira eta lortuko den dirua presoei igorriko zaie.

EDURNE
GIZONEZKOEN JANTZIDENDA ESKUZ ALDATU NAHI DA
☎ 943 72 14 17

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

URKI
liburudenda
Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

Urolako beteranoak: futbolaren alderik gizatiarrena

Futbol profesionalaren ajeak alde batera utzita, kirol jardueraren oinarritzat adiskidetasuna eta talde lana hartzen duten makina bat futbolari afizionatu aurki ditzakegu oraindik. Hauen artean, 90eko hamarkadan Urola Futbol Taldearekin 3. mailan jokatu eta duela hiru urte Futbol 7 txapelketan parte hartzeko Knauf-Decoraciones Nuñez taldea sortu zuten herritarrak ditugu. Txapelketa honetan parte hartzen duten Gipuzkoako 120 taldeen artean Urretxu-Zumarragako beste bi talde era badira: Irish Guinness eta Ekin Fisioterapia Zentroa. Futbolaren alderik gizatiarrenaz hitz egiteko, Iñaki Aranzadi, Mitxel Badiola, Aitor Esnal eta Jose *Kako* Nuñez Urolako beteranoekin izan gara.



Knauf-Decoraciones Nuñez taldean Urolarekin 3. mailan aritutako jokalari asko dago.

Knauf-Decoraciones Nuñez taldearen bultzatzaile nagusia Jose *Kako* Nuñez izan zen. "Futbolean jokatzen jarraitzeko gogoa nuen eta egunkarian Futbol 7 txapelketan jokatzeko deialdia ikusi nuen. Urolarekin 3. mailara igotzea lortu genuenok urtero egiten dugun txangoan, berotu ginenean, garai bateko taldekideei taldea sortzea proposatu nien eta ni neu taldea babesteko prest nengoela esan nien".

Futbol 7 txapelketan gazteek eta ez hain gazteek parte hartzen dute. "Gipuzkoan parte hartzen dugunon artean beteranoenak gu izango gara, baina Araba, Bizkaia, Kantabria eta Madrilen ere jokatzen da txapelketa hau. Gipuzkoan hiru maila daude, guztira 120 talde inguru. Gipuzkoako hiru talde onenek Euskadiko Txapelketa jokatzeko aukera dute denboraldi amaieran. Irabaziz gero, baita Espainiako eta Europako txapelketak ere".

Knauf-Decoraciones Nuñez taldea hirugarren mailan hasi zen, baina urte batean lehen mailara igotzea lortu zuen. Izan ere, urte berean irekiera txapelketa eta itxiera txapelketa irabazi zituen. Lehen mailan bigarren urtea dute eta, dagoeneko, Euskadiko Txapelketara sailkatzeko borrokan dira. Gainera, Mitxel Badiola txapelketako goleatzaile nagusia dugu. Aitor Esnalek adierazi digunez, "iaz Euskadiko Txapelketara sailkatzeko zorian izan ginen eta hori da, hain zuzen ere, gure aurtengo helburua".

Iñaki Aranzadiren ustez, ez dute batere erraza izango Euskadiko Txapelketarako sailkatzea. "Batzuek astean hiru aldiz elkarrekin entrenatzen dute. Guk, ordea, ez dugu elkarrekin entrenatzeko aukerarik". Aitor Esnal bat dator Iñakirekin: "Donostiako talde batzuek urte asko daramatzate eta oso ezagunak dira dagoeneko. Rober's, La Kabutzia, Bataplan eta Lanbroa-Dickens taldeek Euskadiko, Espainiako eta Europako txapelketak irabazi dituzte. Duela gutxira arte Agustin Gajatek jokatzen zuen eta 2. eta 2.B mailetan aritutako askok ere jokatzen dute. Mikel Erentxunek, berriz, bigarren mailan jokatzen du".

Herriko futbolzale batek baino gehiagok gustura ikusiko lituzke Urolako beteranoak jo ta ke, baina herritik kanpora joan behar horretarako. "Libre samar dauden belar artifizialeko zelaietan jokatzen dugu: Idiazabalen, Beasainen, Donostian,

Urnietan, Zumaian, Lezon, Andoainen...".

Zazpi zazpiren aurka aritzen diren arren, partida bakoitzean talde bakoitzeko 15 jokalarik parte har dezakete. Urretxu-Zumarragako talde honetan Urola 3. mailara igo zuten jokalari gehienak aurki ditzakegu: Jacinto, Elizondo, Ramon, Mitxel, Aranzadi, *Kako* Nuñez, Iraola, Mauleon, Mesonero, *Bixio* Aranburu, Angel, Ibarzabal...

Hauek guztiak ondo antolatutako futbol federatu mailetan aritu diren arren, Aitor Esnalen ustez Futbol 7 txapelketaren antolaketa ez omen da atzean gelditzen. "Oso ondo antolatuta dago, txapelketa serioa da. Hori dela eta, talde bakoitzak 1.500 euro ordaindu behar du urtero parte hartzeko. Nire ustez, garai batean serioagoa den futbol federatuan jokatu zuten eta jokatzen jarraitu nahi duen jendearentzat pentsatuta dago. Dena den, gaztetxoek ere parte hartzen dute".

Gaztetxoen aurka apur bat gehiago sufritu behar duten arren, Urolako beteranoak izugarri gustura itzuli dira futbol mundura; lagun giroan kirola egiteko eta ondo pasatzeko asmoz. Dena den, Aitor Esnalek esan zigunez, txapelketa horretan ere ba omen da kirola hala ulertzen ez duen jenderik. "Duela asteburu batzuk, beste partida batean, borrokan hasi ziren. Arazorik handienak beheko mailetan izaten dira, futbola zer den ondo ezagutzen duen jende gutxiago baitago. Gure taldean, berriz, giro ona nagusi da. Asteburua noiz heldu zain izaten gara, jokatzeko eta gozatzeko. Aspalditik ezagutzen dugu elkar eta giro bikaina dugu".

Izan ere, Iñaki Aranzadiren esanetan, helburu nagusia giro horri eustea eta futbolaren arra asetzea da. "Gehiagotan elkartzeko eta futbolean jokatzen jarraitzeko sortu genuen taldea. Irabaztera irteten gara, baina giro onari garrantzia handia ematen diogu. Hala, joko garbiaren sailkapenaren buruan gaude".

Aranzadi, Badiola, Esnal eta Nuñezen ustez, Urolari zor diote futbolaren inguruko filosofia hori. "Aldagelan denbora asko eman dugu elkarrekin eta horrek asko elkartu gaitu. Egoerarik onenak eta okerrenak pasa ditugu elkarrekin. Hutsen bat egiten dugunean barre egiten dugu eta beste talde batzuetan, berriz, eztabaidan hasten dira". *Kako* Nuñezek ere badio zer eskertu Urolari. "Urolak, bertan lan egiten duen jendeak, jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko aukera eskaini zigun. Bestalde, pertsona bezala hezi gintuen".

Urolan bizi izandako une onak medio, Mitxel Badiolaren ustez, oso zaila da futbola behin-betiko uztea. "Momentu batean gelditzeko beharra izan dezakezu, baina gero futbolean aritzeko, taldeko lagunekin egoteko... gogoa berpizten da".

> *Kako* Nuñez: "Urolak, bertan lan egiten duen jendeak, pertsona bezala hezi gintuen"

Baina, Aitor Esnalen esanetan, adiskidetasunaz gain, lehiakortasuna eta ardura ere landu zituzten Urolan. "Oraindik ere geure buruari asko eskatzen diogu, baina ez dut uste egungo gazteek euren buruarekin hain zorrotzak direnik". *Kako* Nuñez iritzi berekoa da: "Lehen taldean gehiago inplikatzen ginen eta taldekideen artean adiskidetasun sakonagoa zegoen. Egungo gazteak beraien kasara ibiltzen dira". Mitxel Badiolak gazteak primeran ezagutzen ditu, Urola entrenatzen baitu. "Egungo gazteek erraztasun handiagoak dituzte. Gure inplikazioa handiagoa zen, sufrimendu ahalmen handiagoa genuen...".

Gure solaskideek futbolaren mailarik gogorrenak soilik ezagutu dituzte, gainera, 2. B maila bitartekoak. "Mailarik sufrituenak dira, baina baita politenak ere. Futbolean lan orduetatik kanpo aritu behar izan gara eta orain ere astean behin nonbaitetik ordu bat edo bi atera eta asteburuetan familia alde batera utzi beharra dugu partidak jokatzeko" (Aitor Esnal).

Emazteek, neskalagunek... zer dioten galdetzean barrezka hasi eta Iñaki Aranzadiri pasatu zioten grabadora. "Urolako gazteak astean hirutan entrenatzen ditugu, asteburuan partida dugu eta, gainera, lagunekin Knauf-Decoraciones Nuñez taldean jokatzen dut. Askotan emazteak dibortzioa eskatuko didala pentsatzen dut! Urola entrenatzeari uzten diodanean errazagoa izango da".

Kako Nuñezek, taldearen bultzatzailea izanik, ez du uste horrenbesterako denik. "Gertu samar jokatzen dugun egunetan, partidak 50 minutukoak direnez, ordu pare batean etxean gaude. Mendira joaten direnek denbora gehiago pasatzen dute etxetik kanpo". Emazteek euren grina ulertzen omen dute, gainera. "Gure emazteek futbolan jokatzen genuela ezagutu gintuzten eta badakite guri futbola kentzea txoriari hegoak ebakitzea bezala dela" (Aitor Esnal).

Taldekide batzuek dagoeneko seme-alabak dituzte eta euren aurkari asko, berriz, gaztetxoak dira; baina ez omen diete adarrik jotzen. "Adarra jotzeko gogoa izango dute, beharbada, baina aurten partida ia guztiak irabazi ditugu eta ez dute horretarako aukerarik. Gure taldeko gazteenak 31 ditu eta zaharrenak 42 urte. Taldearen batazbesteko adina 36-37 urtekoa da eta adin horrekin oraindik maila emateak meritua du. Aranzadi eta Mitxelek egunero entrenatzen dute Urolarekin eta hori asko nabari da (Aitor Esnal)".

Bestalde, adina dela eta, ez omen dira gehiagotan lesionatzen eta ez omen dute alferkeria somatzen. "Txapelketa honek futbolaz gozatzeko aukera eskaintzen digu. Lehen ere gozatzen genuen, baina presioa ere bagenuen. Gure helburu nagusia taldea mantentzea eta gozatzen jarraitzea da. Ez dugu sekula pentsatu Urolako beteranoen elkartea edo antzeko zer edo zer sortzea. Izan ere, gure taldean 3. mailan aritu ginenok gaude, baina txapelketa honetan jokatzen duten beste taldeetan ere Urolan aritutako jendea dago. Hori bai, gure taldeko ateak edonori zabalik daude".



Karmele Azkarate

Karmele Azkarate, Baby dendako arduraduna eta Bi Tartean dendarien elkarteko lehendakaria, Erriberrin jaio zen, baina betidanik Zumarragan bizi izan da. Oinarrizko Hezkuntza Ikastolan egin zuen eta ondoren Institutura joan zen Batxilergoa egitera. Batxilergo ikasketak amaitu ondoren, Seminariora joan zen magisteritza ikastera. "Magisteritzako 1. maila egin nuen, baina gero utzi egin nuen. Ondoren ikastaro bat egin nuen, baina alor hura gustukoa ez nuela ikusi eta dendara itzuli nintzen".

Baby haurrentzako arropa eta ume-kotxe denda duela 37 urte ireki zen eta Karmelek 20 urte baino gehiago daramatza dagoeneko bertan lanean. "Dendatik herriko ama ia guztiak pasa dira jada, baina dendari lana ez da asko aldatu. Lehen dendara etortzen ziren saltzaileei erosteareKin nahikoa zen, baina orain azoketara joan beharra dugu. Izan ere, askoz ere kolore eta modelo gehiago daude eta oso zaila da merkatua kontrolatzea eta erosketak egitea. Bestelakoan, beti bezala, sinpatia eta umore ona ezinbestekoak dira".

Karmele Bi Tartean Urretxu eta Zumarragako dendarien elkarteko lehendakaria da urte bukaera bitartean. "Gustura ibili naiz eta dendari guztiak lehendakari kargutik pasa beharko liratekeela uste dut. Gure azken ekimena bezero txartela izan da eta arrakastatsua izaten ari da. Bi Tartean txartela eskuratzen dutenei puntuak ematen dizkiegu erosketak egiten dituzten bakoitzean eta opariak eta deskontuak eskuratu ditzakete".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Andereñoa, zaindaria, dendaria... gauza asko.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Sendiarekin egotea, paseatzea, sofan etzanda egotea, filmeak ikustea...

-Bizitzeko toki bat?

Zumarraga eta Urretxu oso ondo daude.

-Haurrak asko aldatu al dira?

Gurasoak gehiago aldatu dira... Lehen gurasoek aukeratzen zuten eta orain 3 urteko haurrei jada zer nahi duten galdetzen diete.

-Haur arropan, zer dago modan?

Kolore kontuan gorria eta, bestelakoan, sport arropa.

-Zer da zure laneko gauzik onena?

Jendearekin harremana eta arropa berria heltzen den unea.

-Eta okerrena?

Heldu berria den arropa sailkatu beharra eta larunbatetan lan egin beharra.

-Neguko merkealdiak ala udakoak?

Negukoak, hemen neguak luzeak izaten direnez gehiago saltzen baita.

-Herriko dendarien etsairik handiena?

Merkatal gune handiak. Jendea larunbatetan autoa hartu eta haietara joaten da aste osoko erosketak egitera, baina herriaren biziraupenerako dendak oso garrantzitsuak direla jabetu beharko litzateke.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Txaketa bat.

-Eta jasotakoa?

Kartera bat.

-Data bat?

Azaroak 12.

-Neska eta mutil izen bana?

Enrike eta Elene, nire seme-alabenak. Elkarrizketa irakurriko dute eta beraien izenak esaten ez baditut...

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV eta orain Hitza ere bai.

-Gustuko telebista saioa?

"Vaya semanita".

-Bereziki gorroto duzuna?

Hainbeste daude... "Ana y los siete" esaterako.

-Liburu bat?

"La historia interminable", baina orain seme-alaben ipuinekin nahikoa dut.

-Filme bat?

"Memorias de Africa".

-Soinu bat?

Pianoarena.

-Usain bat?

Larrosarena.

-Janari bat?

Nire amak egiten duen patata tortila.

-Ura ala...

Garagardoa.



Badoa zaharra,

badator berria

izan dadila,

zorionaren iturria.

URRETXU
ZUMARRAGA
IKASTOLA

URRETXU - ZUMARRAGA IKASTOLA

Ondo pasa Gabonak...



...eta urte berri on!